

Gure bezero objektiboak 3 taldetan banatu ditugu. Lehenengo taldea gazteena da, eta 3 taldetan banatuta dago. Lehenengoa 0 eta 8 urte bitarteko haurrena da, badakigu ezin diegula zuzenean gure helburua eskaini, beraz, atal honetako gainerako taldeekin bezala, umezurztegieta arduradunengana joko dugu. Lehenengoaren barruko bigarren taldea 9 eta 12 urte bitarteko haurrak dira. Hauek egoeraren berri gehiago dutenez, jarduera desberdinak egingo ditugu haiekin, erosoago senti daitezten. Azken taldea 14-18 urte bitarteko gazteak dira, hauekin ekintza independenteagoak egingo ditugu eta horrela apur bat libreago sentituko dira. Bigarren taldea erresidentzietan edo eguneko zentroetan dauden jaun eta andre zaharrak dira; ezin dugunez zuzenean eurekin hitz egin, erresidentziekin eta eguneko zentroekin hitz egingo dugu. Gure azken helburua ez da beste bi taldeena bezalakoa, beste enpresa edo negozio batzuk dira, gure negozioa hainbat herritan zehar zabaltzen lagundu diezaguketenak.